



ANDOAINGO ESKOLAKO AGENDA 21. UDALAREN KONPROMISOAK.

Andoaingo ikastetxeek 2020-2021 ikasturtean helarazitako proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Udalak aurten garatzeko edo martxan jartzeko hartzen dituen konpromisoak honako hauek dira:

1.- Zuhaitz-landaketa: laz, eroritako zuhaitzia edo zuhaitzi arriskutsua birjartzea izan zen gure konpromisoa; aurten, ordea, konpromiso horri eutsiko diogu, eta, kontuan hartuta Andoainen klima-aldaketak eragindako eraginaren ebaluazioa, konpromisoa hartzen dugu inpaktu hori udalerrri osoan arintzen laguntzen duten espezieak aukeratzeko.

2.- Biodibertsitatea: Argi daukagu Leitzarari gure altxorra dela, eta horregatik bi azterlan jarri dira martxan: bata Andoaingo biodibertsitatearen egoera ezagutzeko, eta bestea landa eremuko eta hiri barruko guneei duten kalitatea ezagutzeko. Azterlan horien emaitzek hurrengo urteetan garatu beharreko jarduerak markatuko dizkigute, kontserbazioa bermatzeko.

3.- Mendiko bideak: Bide publikoen inbentarioa amaitu dugu, eta orain bide horiek baldintza egokietan mantentzeko lanean jarraitzeko asmoa dugu. Inbentarioa publiko egingo da, halaber, andoaindar bakoitzak identifika ditzan.

4.- Herritarrei zuzendutako ekimenak: Kanpainekin jarraituko dugu. Batzuek proposatzen diguzuen edukia izango dute: adibidez, Leitzarango zabor bilketarako kanpainekin itzuliko gara. Foru Aldundiarekin ere hitz egingo dugu, baso jasangarriagoak susta ditzaten eta lur orotako ibilgailuen eta motorren sarbidea mugatu edo kontrola dezaten.

5.- Foru Aldundiko zuzendariekin bilduko gara herriko mendietako basoak eta dauzaten bideak maiz garbitzeko.

6.- Aurten, gainera, aurrekontu parte-hartzaileen prozesu bat jarri da martxan, eta, horren bidez, Udalak 250.000 euro bideratuko ditu zenbait baldintza betetzen dituzten proiektura edo proiektuetara, hala nola zuzenean ahalik eta biztanle gehienei zuzenduta gotea eta andoaindarrek erabakitzea.



Andoingo Udala

7.- Ekipamenduen inguruan: herriko altzariak aldatzen eta hobetzen jarraituko dugu (bankuak, haur parkeak, etab.) Otietako interpretazio zentroari dagokionez, gure konpromisoa da zerbitzua ematen jarraitzea eta andoaindarrentzat eta bisitatzen gaituztenentzat interesgarriak diren jarduerak egiten jarraitzea.

Ekipamenduen atal honetan, aurten udal brigadak eta Udaltzaingoa auto elektriko hornitzeko ahalegina egingo da: 4 ibilgailu eta motozikleta elektriko bat erosteko asmoa dago.

8.- Kanpainak: herritarrei zuzendutako beste kanpaina berri bat abian jarriko da. Bere helburu nagusia lurrian zabor-poltsarik ez egotea eta birziklatzen diren hondakinen ehunekoak handitzea izango da.

Bestalde, martxan dago gizalegezko Ordenantza baten behin betiko onarpena, andoaindar guztlek gure herriko ondarea, ekipamendua eta bizikidetzaren babesteko dituzten betebeharrak zehaztuko dituen.

9.- Eremu degradatuak: laz esan genizuen espazio degradatuak identifikatu genituela. Aurten eremu horien garbiketarekin hasi gara eta helburua zaharberritzen jarraitzea da.



Andoingo alkatea

Maidez Lainez Lazcoz